

+ Anaitasuna


VI URTEA - N.º 70

Depósito Legal SS. 1.092—1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Apirilla (4) 1960

Dakar aldetik



*Bermeo, Lekeitio ta Elantxobe-ko laguneri.
Jaungoikoak zoriona emon deizuela.*

Gaur, Frai Alberto-ren eta bion bizimodua esan bear deutsuet. Onezkero, jakin gura izango dozue, zelan gagozan, zer pentsetan dogun, zetan diardugun emen Dakar aldean.

Aste egunetan, goizeko seiretan jaigiten gara biok. Ixil ixillik altzetan gara kamaiñetik, ta igoten dogu kubertara; luku dezentetxu baten atonduten dogu altarea, ta antxe esaten dot meza santua, barruko gizonak lo dagozan bitartean; Frai Alberto-k bertan jaunartzen dau, ta sarritan etorten dira mezea entzuten makiniñstea ta guardia egiten dagoan gizona.

Domeketan barriz, arratsaldean esaten dot mezea; geienetan, bostak inguruan. Orduan, barruko danak batzen dira. Barkuaren aurreko mandan ipinten dogu altarea, patrioiak berak be zubitik bertatik mezea entzun al daian. Antxe eukiten dodaz danak neure aurrean. Danak a'tara inguruan, danak begi ta belarri, danak urre urre niregandik. Ebanjelio ostein, amar minutuko berbalditxu bat egiten deutsiet. Importantzia guztiz aundia emoten deutsat momentu oneri. Gaur egunean, arraintzalari —ta beste edo-

zein kristiñauri— entzun eragiteko moduan berba egin bear jako. Erlejiñoko gauzetan guztiz gitxi jakiñarren, enskaldun arraintzaleak egiaren gosea dauko; ta pozik entzuten deutso, bere barruko dudak kentzen lagunduten deutsonari. Orrexegaitik, alegin guztia egiten dot, sermoitxu ori ondo pre-paretako, euren arimako problemak ikutu-teko ta euren berbeta moduan iz egiteko. Mezea amaituta segiduan, afaria jaten dogu danok; domeketan apurtxu bat obeto, azkenengo platera beti arroza esneagaz izaten da-ta.

Zazpi terdiak aldean, radiotik berba egiten deutsiet beste barkuetako arraintzalerei. Zubira igoten dodaneko, Frai Alberto-k dana preparatuta eukiten deust: aparatua ta entzuleak; aparatuari potentzia guztia ataraten deutso, ta entzuleeri cupada bat egiten deutie, danak adi egon daitezcan, ni berba egiten asten naizan-ko. Igaz, Bizkaiko euskera literarioan berba egiten neutsen; aurtan oster, Bermeo-n egiten dan lez, bardin bardin. Nire ustuz, azkenengo modu au, beste baño askoz ohea da, norberaren erriko berbeta obeto uertu, ta biotzean barrurago sartzen da-lako.

Kristo-ren ta proximoaren maitasunak

ekarri gaitu ona; ta ipiñi gaitu arraintzaleen artean, benetakako gizonak ta kristiñauak izaten eureri lagunduteko. Emen gagez, gau ta egun euren ondoan, beste arraintzale bi geiago bagiña lez. Era galanta, geure erriko itxasgizonen bizimodua ezagututeko, euren problemak ta eretxiak jakiteko, euren bearrizanak urretik ikusteko, ta gero euren alde askoz obeto lan egiteko. Jaungoikari eskerak, ez dogu demporea galdu, ta gauza asko ikusi ta ikasi dogu. Zuek be, jakin egin bear dozue zerbait. Neuk esango deusuet orain.

Ona etorri orduko, ez neban pentsatuko, arraintzaleen bizikerea ain gogorra zanik. Gogorra benetan. Jateko pobrea, deskantsu eskasa, bear larregia; ta arraiñik agertzen ez danean, presoan antzeko bizimodua: gizonak tosta gaiñean jezarrita, aspertuta, gogaituta; barkua, egun guztian ara ta ona, kartzela txiki bat itxaso erdian. Ori dala-ta, nire eretxiz, arraintzaleak ez dabe bear dan beste diru irabazten. Euren bizimodu gogorra kontuan eukita, oraiñarte baiño askoz geiago irabazi bear leukie. Aolan bakarrik izango litzake posible, euren bizibidea pixka bat leundutea, bigundutea, gozatutea. Diru geiago irabaziko balebe, barkuan obeto jango leukie ta nasaiago biziko. Orduan, armadoreak eurak-bere obligaziño aundiagoa eukiko leukie, barku obeerik egiteko, barruko gizonak alik ondoan egon leitezana eta gizonaren dijidadeak eskatuten dauan guztia euki leien.

Dirua irabaztea asko kostetan jaken lez, arraintzaleak begi txarrakaz ikusten ditue errez aberastuten direanak, eta maldeziñoak botetan dabez iñoren lepotik dirututen direanen kontra. Eurak ezin dabe ontzat artu, batzuk, kasik bear egin barik, aberastu daitezala, eurak, arraintzale gixajoak, itxasoan gau ta egun lan egiten eta beti pobre bizi direan bitartean. Eurak, naziñoaren beste ordenamentu ekonomiko bat gurako leukie, eta lan egin nai daben guztieri gobernua geiago lagundu leiela. Nik neuk, geienetan eureri emoten deusiet errazoia; eta asko poztuko nintzake, naziñeko ta gure euskal portuetako agintariak ta bape direanak, arraintzaleen problema ekonomiko-sozialeri kasu geiago egingo baleusie. Bermeo-n, esate baterako, bear bearrekoa da, nire ustez, kosta patrioak izateko itxas-eskola bat; eta legortarrak euren Kasinoa daukien antzera,

arrantzaleak-bere euren Soziedadea euki daiela.

Aspaldion, arraintzaleen artean problema sozial barriak sortu dira. Oraindiño dempora asko ez dala, Euskalerriko arraiñuntziak —arrastakoak aparte— txikiak zirean, eta barruko gizonak euskaldunak. Orduan, ez zan diru askorik irabazten; eta itxasora urten be, ez zan egiten urrunera. Orain barriz, barkuak gero ta aundiagoak dira, eta arraiñetan guztiz asgora joan bear izaten da. Irabazi, len baiño geiago irabazten da; baiña itxasoko bizimodua-bere, gogorrago egin da. Aemen gabiltza emeretzi barku, 350 gizon, gau ta egun bearrean, Euskalerritik guztiz urrun, erbestean, baltz tartean, mahometano errian, bertoko iñogaz ulertu eziñik, etxera joateko sasoa noiz elduko dan beti pentsetan. Olako ibilkera gogorrago, arraintzalea azkenean gogaitu egiten da, aspertu, garratu, mindu, benenez bete; okasiñoak ta pelikadak ugaritu egiten dira, eta patrioen ta mariñelen arteko artu-emonak gaiztotu. Tostarteko askok bizimodu barri au ez dabe gura; eta diru gitxiago irabaztarran, naiago izan dabe etxean geratu, Dakar-rera etorri baiño. Baiña euren ordez, beste batzuk etorri dira: kampotarrak, erdaldunak, gure mentalidadea ez daukienak; eta olan, Dakar-reko problema sozialak len baiño geiago nastu dira. Justizia eza, naikoa ikusi dot arraintzaleen artean: patrioen eta tostartekoen aldetik; manda bietatik. Nik ez dakit ze lege modu dagoan, arraintzaleen problemak zuzenduteko. Baiña, nire ustez, oba izango litzake, euren arteko gorabeera guztiak onean eta balkean beti komponduko balira, eta ez erreglamentuen indar utsagaz. Ez dogu bear gudu sozialik. Oraiñarte gure barkuetan geure etxean lez bizi izan gara, jaube ta tostarteko danok bat eginda, danok erriarrak, danok ezagunak. Gauzak aolan segidu daitezala, danon onerako; eta diru geiago edozelan irabazteagaitik, ez daigun galdu gure oraiñarteko batasuna ta bakea.

Len esan deusuet, erlejiñoko gauzetan, euskaldun arraintzalea guztiz ezjakiña dala. Parkatu eistazue, geiegizko modu batean beba egin badot. Bermeotar arraintzalea, beñik bein, ba-da ezjakiña. Beñola, ea nor zan San Jose preguntatu neutsan gazte bateri. Ez eustan ezer erantzun, zati baten

pentsetan egonarren. Asko dira, erderaz be errezetan ez dakienak. Bermeo-ko etxe askotan ez da iñoiz otoitz egiten antza, eta ume askok ez dabe euren aita eguno ikusi Jaungoikoari errezetan. Bermeo-ko arraintzale geienak aztu egin dabe, txikitan eskolan ikasiriko kristiñau dotriña apurra. Euren kristiñautasuna, azalekoa da, mamin bakoa, erro bakoa. Ori dala-ta, euretariako geienak ez daukie erlejiñozko kezkarik, eta materialismoan naiz arduraezean jausi dira. Auxe



da, duda barik, Bermeo-ko arraintzaleen zoritxarrak aundicna. Eta desgrazia onen aurrean, gure erria benetan maite badogu, ezin gaitkekez geratu besoak batuta. Orrexegaitik etorri gara, Frai Alberto ta biok, Dakar-rera. Baiña gure alegiña ia alperrikoa izango da, arraintzaleak eurak a.karren alde lan egiten ez hadabe, eta euren familiak ta erriko kristiñau zintzo guztiak apostoladu onetarako batzen ez badira. Orainarte, nire ustez, Bermeo-ko eleiztarrak ardura gitxi artu dabe arraintzaleen egoera espiritualagaitik; eta askok, guztiz eleizabidikoak izanarren, euren injustizia ta obra txarrakaz kalte aundia egin deustie erlejiñoari arraintzaleen artean.

Sasoi onean gagoz oraindiño, okerrak zuzenduteko, ta galdu dogun arloa bentajaz irabazteko. Ez dago zetan egon geldirik. Arraintzaleak, euren aldetik, borondate ona erakutsi dabe beti. Aurten eta igaz, Frai Alberto ta bion baiezko erabagia jakinarren, badaezpadan Donostira joan izan dira Aita Probintzialagana, eta mesedez eskatu deustie, gu biok eurakaz joateko Dakar-rera. Ta emen nozue euren artean; ez sazerdote beargin modura, periodiku batzuk itsumustuan esan daben lez; kapellau modura baiño. Emen, neuk gura dodan beste dempora daukat, neure errezuak egiteko eta osterantzeko eleiz-eginberrak kumpletako. Goizetan, meza ostean, eguzkia zeru ertzean bere aurpegi gorriagaz agertzen daneko, brebriarioa

errezetan asten naiz, tosta baten jezarrita. Momentu atsegingarria benetan! Ba-daukoz emengo bizitza onek bere pozaldiak; niretzako, goizeko auxe izaten da aundienetarikoa. Gero, egun bitartean, arteka-marteka egoten naiz edo irakurten edo idazten edo domeketako berbaldia gertetan. Eta arraiñetan? Bai, ori be bai; iñok obligatu barik baiña. Beti egoten da olako barkuetan zeregin errezen bat; axe egiten dot. Eurak pozik artzen dabe nire laguntziñotxua; eta nik poiito pasetan dot eguna, iñoiz aspertu barik, beti zetan edo atan diardudala.

Frai Alberto barriz, beti dabil bearrean, beti mesede egiten, beti irribarrea ezpanetan. Gurako neuke jakin, zenbat itxas radio kompondu dituan, zenbat gaixo osatu, zenbat indiziño emon, zenbat agin atara, zenbat tratamentu radioz agindu ta zenbat atun atrapatu. Bakar bakarrik esango deustuet, Jaungoikoak bear egitako doi aparteko bat emon deustola, eta berak, Frai Alberto-k, grazia ori erabilten guztiz ondo dakiala.

Aolan bizi gara gu biok Dakar-ren. Beti pozik, bizimodu au guztiz gogorra izanarren. Datorren urtean-bere etorteko prest, Itsas-Apostoladuko Zuzendariak itxiten badeuskue. Nire ustez, gure ibilkera onek ez dauko zerikusirik Frantia-ko sazerdote langilleen bizimoduagaz. Orrexegaitik esperantza aundia daukagu, aurrerantzean-bere orainarte lez jarraituko dogula eta beste lagun asko apostoladu onetan batuko jakuzala.

Erregutu asko zuek Jaungoikoari Itxas-Apostoladuaren alde, gure asmoak ondo urten daien, eta munduko itxasgizon guztiak, batez-bere euskaldunak, ainbat ariñen Kristogana biurtu daitezcan.

Agur danori.

Dakar, 1960, aprillak 30

Aita Imanol Berriatua





Bata ta bestia

MISINOAK.

Igaroaz joakun garixumako bigarren as-
tean euskal-mi-inoak izan genduzan Andra
Maiako eleiza nagosian: emakume-kontzat
arrat-aldeko lan ta erdietan eta gabeko zor-
tzi-retan gizonetzkoentzat eta ordu bitsi on-
etan eleiza zabal ederra bete-beterik aurki-
zen zan.

Aita Larrozkain Eubatiko Pasionista iz-
lari errez eta sakonak, geure barrenak ondo
arakatu eta aztertu deuskuz, eta San Jose
eguneko Jaunartzeak ugariak izan zirean.

PIRRIST...!

Irlandako gizon apain batek, bere zor-
tzi-amar urtedun semetxua, pasiatzen da-
roa. Eta, bide batez, mundu onetako eder-
tasun guaiak azaltzen deutsoz...

Ara, txotxo, diñotso: Mundu andi au eta
bertako kreatura guztiak Jaungoikuak egi-
ñak eta sortuak dira, eta bekotzak bere zere-
giña, bere lana bete biar dau, nai-ta-nai ez:
txoriak, zuzatzak, animai-mueta guztiak,
ibaiak eta itxasoak berak, guzti guztiak...

Onetan doizana kardantxiilo kantari polit
bat «pizpiñekka» euren gane-ganetik, egaz
igaroten da, eta ain zuzen bere, «pirrist»
eginaz gizonaren kapela ederra zikiñez be-
tetan dau...

Semetxu azkarrak beria!axe dirautso:

—Txoritxu polit orrek, zer egin deutsun
ikusido zu, aita?

—Bai txotxo, ikusi joat. Orrek bere, bere
zeregiña bete dau, eta alan be, Jaungoikuari
eskerrak emon bearrean gagoz, be!ari eta
astoari-eta egorik ipiñi ez eutsielako... Bes-
tela!...

LAPURKERIAK.

Eguneroko papel baten irakurten dodanez,
UGANDA aldeko agintariak, buru-auste an-

diak ei-darabillez, joan direan urtietan ga-
nadu-lapurketak ugaritu, geiegitu egin di-
reala-ta...

Lapurkeri ugaritasun ori nundik-norako
ete da?

Ara: erri orretako mutillak, emaztegeia
billatzeko edo, beintzat, euren gogoko dan
emakumetxuaren gurasoak eureganatuteko,
zurituteko, abelgorri bat edo bi erregaluz
emon biar izaten deutsiez. Baña abelgorriok
oso garezi dagozalarik, crosten ibilli barik,
dagezan lekuan ostu egiten dituez da... ¡ki-
tu!

Alan bere, mutikuok, euren begiko direan
neskatilatxuak eureganatu badituez... gatx-
-erdi.

PETROLIOA.

Gernika-ibarrian, ainbeste gar eta leiaz
asi zirean petrolio-billatze lanak, amaitu di-
reala dirudi. Beintzat ain arto eta lerdan
jaso eta agiri zan burni-torre andia, geiena
askatu, eta lurrean datza...

Egia esan, petrolio-kontu ori, Gernikar
geyenok, ezkendun inoiz aintakotzat bere
artu, eta lanean sendo gau ta egun asi zi-
reanean, mordo-ka batzuk ikus-miñak edo
jakin-guriak mobidu zituan arren... laster
guztia amaitu da, eta ofiziña-langileen ba-
tzuk emen itxita, geienak joan zirean euren
bidetik.

Aintxiñatxuko neskamearen kanta zarra
atara biarko:

Atzo etorri nintzan
gaur ein dot urtie,
agur ugazaba ta
ugazabandrie.
Emengua joan dok eta
urrengorartien.



Nor da maitasun eske jatortsuna?

Mutil gazte asko —euskaldunak geitxoago—, euten biotz-miña neskatileari agertzeko orduan, lotsorak dira. Eta batzuk telefonoz eskatzen dabez lenengo maitasun-berbak.

Ba-dira, ostera, lotsabako galantak, telefonoz enamoradu-berba zoli-zoliak parraparra jaurtitzen dabezanak be. Itxurea ta importantzia emotearren geienetan. Jasezko neskatileak kontuz ibilli bear dau orretari-koakaz, eta ezteutsie jaramon geiegi egin bear. Lendik ezaguna danean ondo dago jaramon egitea, baiña ezezaguna danean edo olan-alako mutillen bat, kasurik ez egitea da onena. Ori bai, al danik ondoen konpondu bear dira gauzak, eta “ez” esan bear danean be taiuz esaten jakin bear da.

Denpora-aldien baten urreratu gurean ibilli jatzun mutillagaz gauzak formalian aste-ra zoazeneko, ezagutu egin bear dozu zure mutil-laguna. Ordurako, jakin egin bear dozu: nor dan, zelan portetan dan, zelako fama daukon, bere senide-artekoak zela-koak direan.

Eta gero lagundu zineio ziñera, teatroa, edo jantzara... Baiña beti zeure dinidadea ondo zainduaz.

Eta mutilla ona bada, eta alkar maite izateko indarra badaukazuela ikusten dozue-anean, zeun gurasoeri esan bear deutzazue lener-lenen. Izatea emon deutsuenak badaukie orrenbeste jakiteko eskubidea. Sarritan ganera, zeuok biotzagaz bakarrik neurtuten dozuena, eurak biotzagaz eta buruagaz ikusten dabe, maite zaituelako, eta zeun zoriona gura dabelako. Eta euren eretxia zeun onerako izango da beti.

Ganorabako mutillen bat berba ariñegiak edo lotsabageak esaten urreratuten jatzue-anean, jaramonik ez egitea dozue onena. Ez esan kirtenkeririk, ori zeun dinidadearen kontrakoa dalako. Mesedez bakean itxiteko agindu, edo urrean aurkituten dan persona nagosiagoen batgana joan.

Kartakaz kontuz ibilli bear da. Jai edo bidajeen baten alkarregar izan zarien mutillak idazten badeutsu, erantzutea edukazi-ñozko da. Baiña asko be oba da mutillaren famili guztiari erantzutea, ezagututen badozu, mutillari bakarrik erantzutea baiño. Eta kartearen azpian ez iñoiz idatzi: Miren Argi, edo Edurne. Izen eta deiturea, biak ipiñi.

Mutillak bere kartetan esaten deutsuena ez berealakoan siñistu. Askok biotzkada aunditxoegiak izaten dabez, eta sekulako enamoradu-berbak idazten dituez. Olakoe-ri eskribidu deutsuen karteak barriro eureri bialdutea da onena.

Ez emon iñori zeun erretraturik, eztaki-zuelako zeun erretratuagaz zer jazo leite-kean. Baleiteke mutillen artean eskuetatik eskuetara ibiltea, barre ta burla egiñez, eta zeun fama on guztia zikinduta gelditutea.

Erromeri edo jaien baten erretratu bat atarateko mutil gazteak deituten deutsue-anean, ez tximiñokeririk egin erretratua ataratekoan. Ez asi ziñe-neskatilla edo kittaña itxurak artzen, eztakizu sarritan erretratu ori noren eskuetara eldu leitekean-da.

Ezkontzeko asmoa artzen dozuenean, orduantxe emon zineio nobioari zeure erretra-turen bat. Berak maitasunez eta errespetoz gordeko dau-ta.


Neskatilla askok, Brigitte Bardot, Kim Novak edo Sarita Montiel-en antza topatea gura izaten dabe. Eta alegin galantak egi-ten dituez espillu aurrean. Ori lotsagarria da benetan. Norbere buruagaz lotsa izatea dalako.

Gorde egizue edonon eta beti zeun dini-dadea. Zaindu zeun gorputza. Baiña ardu-ara andiagoz landu zeun arimako doai eta graziak. Ez edozein moduko mutillen es-kuetan itxi zeun biotza.

“La Familia Cristiana-tik” eraturta

J. K. Guarrotxena

MUNDUAN ZEAR



Gaurko mundu au dala-ta zeozer esan da gero! Bai kontra ta bai alde. Aurrerapidea, auxe da gure gizaldiaren legea. Aurrera begira bizi eztanak ez dau ezertarako balio. Gure asabak eta gure aurrekoak ez eben ezer egin; areik nagi batzuk besterik eziran! Baiña, gixajoa, areik egin ebena gitxi edo asko barik zer egingo ete zenduan zuk gaurko egunean? Eurak egin ebena edo gitxiago. Ikasi daigun gure aurretikoen eginkizuna onartzen eta goratzen, bestela emendik gizaldi batzuetara beste ainbeste egingo deuskue gure ondorengoak.

Gure gizaldia, gure gizaldia! Zorioneko gizaldia. Egunero eskerrak emoten deusadaz nik Jaungoikoari egun onetan sortu naualako, baiña baita parkatzeko eskañu be gizaldi onen pekatuak. Ez daukoz ala?

Eguneroko orrialdeetan beti irakurtzen gagoz eztakit nor eta zelan il dan, abioien bat jausi dala ta 50 lagun il direala, an edo emen ainbat automobilek elkar jo dabela... Zenbat samiñaldi ekarten deuskuzan zorioneko kilometroak iruntsi bear orrek, diabrukerizko zalapartan arin ibilli bear orrek.

Gaurko gizonok asko dakigu; gaur mundu guztia da jakintsua. Eta munduan euneko berrogetamarrek ez dakie ez irakurten ez idazten. Asian bertan euneko 32'k baka-

rrik dakie irakurten eta idazten eta Afrika 17'k bakarrik.

Gaurko egunean mundua bakerik aundinean. Bai orixe ba! Eta zertarako dira bear ba atomika orreik danak? Ez ete gara konturatzen naiz ta bakean ibillita be ain teategarri direana? Utsune batek, erratu edo erru txikien batek mundu erdia austu bekeana?

Gaur familia iñoiz baiño sendoago. Eta mundu guztian sortzen ari dan problema ikaragarria? Ezkontza-austeak andik, bear ru-bako gazte-taldeak "teddy-boys" diren lako orrek bestetik; eta egunotan munduko errebista guztietan irakurri geinken problema ikaragarria "birth control" deritzan. Badakigu munduan geroago eta jente geigo bizi gareala eta zeinbat eta geiago ngaritu ainbat estuago bizi bearo dogula. Baiña ori dala-ta jaiotzak urritu? eta gainera ezkontzako atsegiñak zutunik istearre medikamentu artifizialakaz bideak itxi jai bear leukien umetxoeri? Jaiio bear eben eta jaiio ez direan orrek edo guk, nok dogu bizi zitzeko deretxo geiago? Ez gara danok Jaungoikoak egiñak? Alan da, baiña gaurko munduak ez dau gorantza begiratu gura; lurrean sartu da eta barrura sartu be zati batean ez urtetako eran. Problema barriz, aberastasunez gaiñezka naziño

tzuk eta bear-izanik aundienean beste batzuk dagozan bitartean ez da askatuko.

Eta problema gorriagoak be badagoz. Eta asko egon be.

Ez-gaitezan ba gure gizaldi onen aunditasunak kontatzen larregi arrotu. Orrelan bizi garean bitartean gatzak geroago eta ugariago eta aundiago egingo dira. Gure eginkizuna beste bat da: Eskerrak emon Jaunari gizaldi onen aunditasun guztiakatik eta egun oneixetan mundura ekarri gaitualako. Berari, dana egin leikeanari, otoi

egin; eta geure aldetik zintzo lan egin problema orreik erabagiteko. Lenengo norberagandik asi bear dogu. Ez besteari okerrak zuzentzeko agindu eta neu geroago ta okerrago joan.

Lan egin daigun, zuzentasun apurtxu baten bearrean gagoz-ta. Baiña ez negarrez, pozez eta esperantzarik aundienagaz baiño.

Gure gerokoak ez daitezala okerrak izan gure erruz.

Ormaetxe

Nazismo barria?

Gora-bera aundiak izan doguz aspaldi onetan Alemanian. Nazismoa dala-ta, gorriak ikusi bear izan dituez barriz be judegu gizaioak. Nazismo onek, lengo nazismoaren kimu barria izan bear dau: nazismo barria.

Zer dala-ta, ba, orrelako gora-berak? Auzer da benetan oraindiño iñoik ez dakian gauzea.

Gabon bezperan asi zan dana. Kolonia-ko sinagoga barrian ainbat sbastika agertu zireanean. Ordudanik burrundadea ugari izan da Alemanian. Erri guztietan egin bear izan dabe zeozer. Eleirak eurak be ez dituez errespetatu. Speger, Bingen, Gelsenkirchen eta beste errietaiko elezetan nai-ala sbastika agertu zirean.

Bingen'nen, katolikoen batzar etxean sbastika bi agertu zirean, eta gaiñera au: «bizi bedi Hitler - barriz etorriko gara». Bertako abade jaunari auzer esan eutsien telefonotik: «Alemaniako Reichen partidua. Gaur gabean bertan jasoko dogu gure sbastikea zure elexa orretan».

Alemania-ko gobernua ez dago konforme. Jakiña dozue zelan Adenauer bera egon zan Kolonia-ko sinagoga onen konsagraziñoan. Ara emen zer idatzi eutsan Adenauer jaunak judeguen maisu dan Zwi Asaria-ri: «Alemaniako gizon guztiak, neugaz batera, kondenetan dituez egindaio zantarkeri orreik». Eta Luebke presidenteak: «astakeriak eta nabarmenkeriak» deitu eutsien egintza orrei-

ri. Eta gerotxoago radioz: «negargarria zala, Alemaniako erri batek materialismoa, bera baiño askotaz aundiagoak eta ederragoak direan gauzen gaiñetik ipintea.»

Gogor diardu gobernua nabarmenkeri orren atzetik. Batzuk an dagoz kartzelan. Elexa eta sinagogak poliziaz zainduta dagoz. Munizipio batzuk diru mordo ederrak eskeiñi dituez ganbelu orrein barrien truke. Benetan asi dira gogor Adenauer-en lagunak oraingoan.

Bitartean jenteak itanduten dabena au da: nortzuk dira, baiña, nabarmenkeri orrein jabe edo zer gura dabe?

Batzuk diño komunistak eurak izan ete diran, Alemaniaren izen ona lurperatzearren. Alemania ondo ikusia dagoelako naziñoen artean.

Beste batzuk Adenauer bera botateko izan ete direan. Onetara, bere etsaiak izango zirean, Adenauer gizon aundia da gaur munduan-eta.

Badiño gazte buru bageko batzuen egintzak ete direan be.

Dana-dala gauza illuna da beintzat gaur egunean ain gogoraziño balzak ekarten deuskuezan gauza oneik barriro biztutea. Batikano-radioak be gogor gogor egin eban gertaera onein kontra, eta Pio XII-garrena-berbak aitatu ebazan.

A. Zubi

Astoa eta errotaria

VALENTIN EMBEIT

Astoa

Etxeko jauna aspalditxuan
Enabil emen gustora
Gelditu бага beti lanian
Batera eta bestera
Lanaren truke lasto sikua
Natorrenian etxera
Niriak egin dau asto onegaz
Errukitzen ez bazera.

Errotaria

Aspalditxuan ikusten zaitut
Lan egitiaz mindurik
Jatekoari atxaki emon
Ta geldi egon gurarik
Ezer ein бага jan eta edan
Ez dozu gura besterik
Geldi egoteko etxe onetan
Ez dogu biar astorik.

Astoa

Egun danetan beti lanian
Badakizu nabillena
Zure zorroak ara ta ona
Erabiltzen dodazana
Zeuretzat dira irabazia
Niretzat bakarrik lana
Beste gauzarik ez dot eskatzen
Gosia kentzeko jana.

Errotaria

Zure lanaren irabazia
Egunaro artzen dozu
Lasto sikua zatozanean
Kortan naikua daukazu
Beste gauzarik ez dozu biar
Arrantza gitxi eidazu!
Eta lanera! zure bilkarra
Berotzia nai ez bozu.

Astoa

Nagosi onek ez dau agertzen
Menpekoen maitasunik

Onen biotzak ez dauko beintzat
Astoaren errukirik
Zaratia ta palukadia
Ez dozu beste legerik
Nik uste neban lau ankakak
Zirala astoak bakarrik.

Erabagia

Astoa eta errotaria
Orra alkarregaz autuan
Asto gaxoak arrantzaz baña
Saku astuna lepuan
Errotariak barre eginda
Irabaziak kokuan
Asto pareko amaika kirten
Bizi da gure munduan.

iJa-jai!

BILINTX

Bein batian Loyolan
Erromeriya zan
Antzen ilcusi nuben
Neskatra bat plazan
Txoriya bañon ere
Ariñago dantzan
Uraxen bai pollita
An pollitik bazan.

Esan nion desio
Senti nuben gisan
Arekin izketa bat
Nai nubela izan
Erantzun ziran ezik
Atsegin ar nezan
Adituko zirala
Zer nai niyon esan.

Arkitu giñanian
Iñor gabe jiran
Koloriak gorritu
Arazi zizciran
Kontatuko dizutet
Guztiya segiran
Zer esan niyon eta
Zer nai niyon esan.

—Dama pollita zera
Pollita guztiz jai!
Bañan alare zaude
Oraindik ezkongai
Ezkon gaitezen biyok
Esan zadazu bai.
—Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? ¡Ja-jai!